

UDALAREN OSOKO BILKURA **Bilkuraren akta**

Ohiko bilkura

Data: 2020ko martxoaren 11, asteazkena.

Ordua: 20:00.

2020ko maiatzaren 20ko bilkuran, akta onetsi zenean, egin ziren oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, Eduardo Terroba Cabezon (EAJ-PNV) alkate-udalburu jauna bilkuraren buru dela, honako zinegotzi jaun-andre hauek elkartu dira Udalbatzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

Bilkura eratu den uanean bertan ez zeuden zinegotziak: Aitor Beloqui Unzurrunzaga (PP).

Saioa alde zuzenetik eta arauzko publikitatearekin deitu da, eta honako hau izan da gai-zerrenda:

Gai-zerrenda

1. Onartzea 2020ko otsailaren 12ko ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea.**
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.**
5. **Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea.**
 - 5.1. M8ko erakunde-adierazpena, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta. Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea.
6. **Ekonomia, Ogasun, Enplegu eta Hirigintza Batzordea.**
 - 6.1. 2019 ekitaldiko aurrekontu orokorraren likidazioa eta kredituak gehitzeko espedientea.
 - 6.2. 2020. urteko ohiko aurrekontu orokorraren hasierako onarpena.

Azken puntua) Galde-eskeak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko gai-zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onartzea 2020ko otsailaren 12ko ohiko bilkuraren akta.

Hau erabaki da:

- 1) Onartzea 2020ko otsailaren 12ko ohiko bilkuraren akta.

Aldeko 10 (hamar) boto: Eduardo Terroba Cabezon (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE), Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE), Eduardo Inclán Gil (PP) eta Daniel Salvador Adán (zinegotzi ez-atxikia).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkariak, alkate-udalburuak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratik aurrera emandakoen berri: 19/2020 eta 44/2020 bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

3. Kultura, Turismo, Ospakizun, Obra eta Zerbitzu Batzordea.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirol Batzordea.

5. Euskara eta Gizarte Ongizate Batzordea.

5.1. M8ko erakunde-adierazpena, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta. Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea.

Eslava andreak irakurri egin du M8ko erakunde-adierazpena, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta.

Mundua eraldatzen duen emakumeen boterea

1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitzen ditu, historian zehar euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatu dituztenak. Borrokek aldaketak ekarri dituzte legeetan, gizartean eta kulturaren, eta gizarteak berdintasun- eta demokrazia-maila handiagotarantz aurreratu dituzte.

Hala ere, emakumeen borroken garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klase, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasunak, besteak beste.

Beijing Ekintza Plataformak 25 urte bete dituenean, belaunaldi berriak bat egiten du giza eskubideak defendatu eta genero-berdintasuna lortuko duten ekonomia, gizarte eta sistema politikoak irudikatze borrokan, inor bazterrean utzi gabe. Munduko mugimendu honen ustez generoen arteko berdintasuna ez da soilik oinarritzko giza eskubidea, baizik eta mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria. Garapen Jasangarrirako Helburuetan jasotzen den bezala. Berdintasuna gizarte osoaren mezu bakar gisa aldarrikatzeko garaia da.

Emakumeen borrokek eta kaleetako mobilizazioek instituzioei konpromiso irmoko ariketa egitea eskatzen digute:

- Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan;
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea;
- Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztietako emakumeek tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturaren parte hartzeko;
- Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea;
- Bizitza erdira ekarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.

Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik,ko Udalak konpromiso irmoa adierazi du berdintasuneko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituen tokiko bizitzan, honako neurri hauek abian jarririk.

Toki-eremuan berdintasunaren konpromisoan aurrera egiteko neurri posibleak:

- Udalerriko emakumeen baldintzak eta egoerak sistematikoki aztertzea baliabide, ondasun eta zerbitzu guztiak eskuratzeari dagokionez, bai eta tokiko bizitzan parte hartzeari dagokionez ere, desberdintasunak identifikatu eta zuzentzeko.
- [Tokiko Bizitzako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Europako Gutunari](#) atxikitzea, eta Gutunean zehaztutako konpromisoak aplikatzea bere lurraldean.
- Tokiko berdintasun-politikak bultzatzeko langile eta baliabide nahikoak dituen egitura egonkorra edukitzeko urratsak egitea, toki-mailan edo beste udalerrri batzuekin elkartuta.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunerako Tokiko Ekintza Plana garatzea, haren eragina ebaluatzea eta emaitzen berri ematea.
- Tokiko arauak arian-arian artikulatzea berdintasun-politikak garatzeko, eta udal-jarduera osoan genero-ikuspegia txertatzen dela bermatzea.
- Indarkeria matxistaren arretarako eta prebentziorako Tokiko Koordinazio Protokoloa garatzea edota eguneratzea.
- Tokiko jardueretan indarkeria matxistaren biktimei erreparazioa emateko printzipioaren aplikazioan aurrera egitea.
- Udaleko arau, programa eta zerbitzuen genero-eraginaren ebaluazioa arian-arian garatzea.
- Udalerriko emakumeak ahalduentzeko programak eta ekimenak garatzeko espazioak eta baliabideak eskaintzea.
- Toki-mailan, emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin etengabe komunikatzeko espazioak antolatzea, berdintasunaren aldeko eta indarkeria matxistaren aurkako tokiko politikak diseinatzeko eta ebaluatzeko.
- Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarearekin – [Berdinsarea](#) – bat egiteko urratsak ematea. Sare horren helburua da indarrak batzea eta tokiko gobernuek elkarrekin jardutea berdintasunaren aldeko eta emakumeenganako indarkeriaren aurkako politikak, programak eta zerbitzuak bultzatzeko, indartzeko, koordinatzeko eta ebaluatzeko.

Azkenean, Udal honek dei egiten die herritarrei Emakumeen Nazioarteko Egunaren kariatara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten.

6. Ekonomia, Ogasun eta Enplegu eta Hirigintza Batzordea.

6.1.2019 ekitaldiko aurrekontu orokorraren likidazioa eta kredituak gehitzeko espedientea.

Idazkariak, alkate-udalburuak hala eskatuta, 2019 ekitaldiko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du eta adierazi du Oyón-Oiongo Udalak berriz ere aurrekontu-ekitaldia positiboan itxi duela.

2019ko aurrekontuaren emaitza 305.722,90 euro da. Aurrekontuaren emaitza ekitaldian garbi aitortutako eskubide guztien eta aldi berean garbi aitortutako betebeharren arteko aldea da. Aurrekontuaren emaitza toki-administrazioek epe laburrean duten gaitasunaren edo kaudimen ekonomikoaren lehen adierazlea da. Ondorioz, entitatearen urteko soberakina edo defizita islatzen du.

2019 ekitaldiak gastu eta egonkortasun araua betetzen du, entitatearen aurrezki arrunt garbi positiboa lortu baitu 947.650,94 euroko zenbatekoarekin, 2019 ekitaldiko aurrekontu emaitza positiboa izanik 305.722,90 euroko zenbatekoarekin.

Aurrezki garbia sarrera-egoeran likidatutako eskubideen eta gastu-egoeran aitortutako betebeharren arteko aldea da, amortizatzeko zain dauden maileguen amortizazio teorikoaren urteren zenbatekoa eta aurreikusitakoen kopurua murriztuta. Kasu honetan 0 (zero) euro da.

Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina 833.558,01 euro da eta diru horren zati handi batek 2020an ekonomikoki jasangarriak diren inbertsioak egitea eta kreditu hondarrak sartzea finantzatzea ahalbidetuko du.

Zorraren emaitzak ere positiboak dira eta, beraz, gure finantza-sistema "osasuntsu" dago.

Bestalde, esan beharra dago 2019an Oyón-Oiongo Udalak Oion Arena futbol zelaian inbertsiorako geratzen zitzaion azken mailegua ordaindu zuela (1.200.000 euro), eta Udala finantza-zorrik gabe geratu zela.

Beraz, zorraren eta egungo errenta ratioak % 0ko emaitza ematen du.

Idazkariak, alkate-udalburuak hala eskatuta, kredituak gehitzeko espedientearen berri eman du. Aurrekontua aldatzeko espediente bat da: likidazioa onartu ondoren, 2019. urteko aurrekontu orokor arruntaren gastuen egoeretan jasotako ordainketa-kredituak (gaur egun, aurreko ekitaldikoaren luzapena da) 2019ko aurrekontu orokor arruntan sartu dira, fitxategian ageri diren jada aitortutako betebeharrak betetzeak eraginik izan gabe.

2) Kreditu gehikuntzak honako hauetara egokitzen dira:

- a) Gehitutako kredituek jatorrizko aurrekontuan gehituko balira izango luketen xede bera izango dute.
- b) Gehitutako kredituak eratze-ekitaldian egin beharko dira, eta ezingo dira ondoz ondoko gehikuntzak egin, azken sarrerekin finantzatutako kapital eragiketen kasuan izan ezik.
- c) Kredituak hurrengo ekitaldiko aurrekontuetako gastuen egoera-orrietan sartutako programa-multzoetan gehituko dira, baldin eta gehituko diren kredituak jasotzen zituzten programen jarraipena badira.

Halaber, aurrekontua aldatzeko espediente berean, 171 227001 Makalen pantailen mozketara partida hornitzea 28.556,00 euroekin.

Bertaratuak jakinaren gainean geratu dira.

6.2.2020. urteko ohiko aurrekontu orokorraren hasierako onarpena.

2020. urterako ohiko aurrekontu orokorraren hasierako onarpenerako ebazpen-proposamenaren berri eman da.

Aurrekariak:

1. 2020. urteko Ohiko Aurrekontu Orokorraren proiektua 2020ko otsailaren 7an bidali zitzaizen zinegotzi guztiei.
2. Zuzenketak formulatzeko epea ezarri zen 2020ko otsailaren 7ra arte.
3. Epe horretan zehar ez da zuzenketarik aurkeztu, ezta zalantza, galdera edo argitzeko eskaerarik ere.
4. 2020ko martxoaren 4ko Kontuen Batzorde Berezian ez zen zalantza, galdera edo argitzeko eskaerarik egin.
5. Aplikatzekoak dira Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 6.-12. eta 14., 15. eta 16. artikulua.
6. Halaber, aplikatzekoa da 7/85 Legearen 47.1 artikulua: aurrekontuen behin-behineko onarpena gehiengo absolutua behar ez duen akordioa da.
7. Kontu Hartzailtzaren txostena jasota dago.

Proposamena:

1. Hasieran onartzea 2020. urteko ohiko aurrekontu orokorra.
2. Udal-aurrekontuen exekuzio araua onartzea.
3. Lanpostu-zerrenda onartzea.
4. Espedientea jendaurrean jartzea otsailaren 9ko Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko 3/2004 Arauan ezarritako epeetan.
5. Behin-behineko onarpen-erabaki hau behin betikoa izango da ez bada alegaziorik aurkezten. Alegaziorik egonez gero, hilabeteko (1) epean ebatziko dira.
6. Espedientea behin betiko argitaratzea eta Arabako Foru Aldundiari horren berri ematea.

Alkate jauna: Idatzitako aurrekontuari begira, aurrekontuari buruzko Alkatezaren memoriari egin nahi diot erreferentzia, baina ez dizuet irakurriko, guztiek irakurri duzuelakoan. Nolanahi ere, aktan jasotzeko eskatzen dut.

Salvador jauna: Alkatearen aurrekontu-proiektuak oso adostasun gutxi sortzen du eta gezurrezko zinegotzi batzuek hartzen duten espiritu autoritarioa agerian uzten du. 10 eguneko epea ezarri da oposizioari bidea zailtzeko. Iruzur demokratikoa dela deritzot. Aurrekontuari eta kontratazio praktika batzuei dagokienez, Herri Kontuen Euskal Epaitegira joateko eskubidea gordetzen dut. Eta jakinarazi nahi dut ez dudala bozketan parte hartuko.

Salvador jauna bilkuratik irten da.

Inclán jauna: Ez dut ilegaltasunik somatu, baina ikusi dut oso jarrera itxia dagoela. Nire botoa aurkakoa izango da. Jarrera inklusiboagoa beharrezkoa dela uste dut, agian egiteko modua ez da onena izan; parte-hartze handiagoarekin egin daiteke.

Alkate jauna: Aurrekontuen proiektua idazteko ardura alkatearena da eta osoko bilkuran aurkezteko eskumena alkateari dagokio. Oposizioko talde batek berak ez du argibiderik, informaziorik edo bileraren bat egiteko eskatu, eta ez da zuzenketarik aurkeztu. EH Bilduk bakarrik eskatu du argibideren bat alkatearen memorian agertzen den zifra bati buruz.

Alkate jauna: Guretzat aurrekontuetan parte hartzeak gobernuan parte hartzea esan nahi du.

Gamarra jauna: Saioan egongo gara eztabaidatzeko, gure iritzia adierazteko eta bozkatzeko. Interesgarria irudituko litzaiuke taldeek parte hartu eta lana hartzeko espazio bat sortzea. Ez dut uste aurrekontua autoritarioa denik, baina uste dut taldearen irristadaren bat badagoela. Eta jakinarazten dut aurrekontu honen alde egiten jarraituko dugula. Gure botoa arrazoietan oinarritzen da, ez kapritxoetan.

Alkate jauna: Gure lan-metodoa gobernu-taldeak proposatzen duena da eta taldeek zuzendu egiten dute. Irekita gaude talde batek gobernu-taldean sartu nahi badu.

Villanueva jauna: Gustatu izango litzaidake zinegotzi ez-atxikiari esatea benetakoa naizela, ez gezurrezkoa; baina bere hitzaldia eman ondoren joan da eta ez ditu gainerako taldeenak entzungo. Aurrekontua egokia iruditzen zaigu, eskatu dugu ibaiatz bestaldeko parkean dauden zabuak konpontzeko, eta egingo da; hala ere, aurka bozkatuko dugu ez gaudelako ados Udalak duen lanpostu-zerrendarekin.

Oyçon-Oiongo Udaleko gaur egungo lanpostu-zerrendan zerbitzuen batzordean denbora nahikotxo daraman (ia 2 urte) pertsona bat dago, eta okupatzen duen lanpostuan bitartekoa da (atezaina).

Ez gaude ados LZ honekin eta behin baino gehiagotan eskatu dugu behingoz eguneratzeko, hiru lanpostu "itxi" gabe daudelako: zerbitzu batzordean eta atezain lanpostuan dagoen obra-arduradunarena (arrazoi horregatik, atezain lanpostuan bitartekoa dago eta esleipen-prozedura ez oso argia dago) eta administrari lanpostua. Azken horrek hutsik darama urtebete, eta administrazio-postuen lan-kargen ikerketak gomendatu arren hori esleitzeko, oraindik ez da lehiaketan atera.

Horrez gain, liburuzainaren lanpostua dago; aurrekontuetan ikusi dugunean arraroa egin zaigu eta pixka bat ikertu dugu.

Lehenik, zergatik eman digun atentzioa. Ikaragarritzko soldata duela ikusi dugu, izan ere, lanaldi erdia egiten du eta urtean 27.574 euro irabazten du.

Pertsona horren kontratua lanaldi erdikoa da, eta hori da arraroa dena. Era berean, lanpostuaren deskribapena liburuzain-laguntzailea da.

Oyón-Oiongo Udalean pertsona horrek duen kontratua 1988ko martxoaren 7koa da.

Kontratuaren arabera, 81.703 pezetako (491,04 euro) soldata du, honela banatuta: 53.595 pezetako (322,12 euro) soldata, 23.779 pezeta (142,91 euro) lanpostuko osagarri gisa eta 4.329 pezeta (26,01 euro) antzinatasunagatik. Lan-kontratua 1988an egin bada, zergatik du antzinatasun osagarria?

Gauza da pertsona horrek Udalean duen antzinatasuna 1983koa dela; beraz, pentsatzen dugu 83tik 88ra arte Udalarentzat lan egiten egon zela eta horregatik duela antzinatasun osagarria.

Pixka bat ikertu ondoren, C taldean kokatuta dagoen liburutegiko laguntzailearen soldata (laguntzaileek D taldean egon behar dute) 766,06 euro eta 803,53 euroko lanpostu-mailako osagarria da; hau da, guztira 1.569,59 euro. Eta Oyón-Oioneko liburuzainak 1925,28 euro irabazten du.

Denek dakite EH Bildu Oionen jarrera lanpostu-zerrenda hori handitzea eta udalerrian egindako azpikontratutako lana udalerrian jartzea dela. Arrazoi horiengatik ezin dugu Oyón-Oiongo Udaleko lanpostu-zerrenda onartu eta horregatik aurrekontu honen aurka bozkatuko dugu.

Eta datorren hileko osoko bilkuran eztabaidatu beharreko mozioa aurkeztuko dugu, non orain azpikontratututa dauden lanpostuak berriro udalekotzeko eskatzen dugun.

Alkate jaunak egindako eskaerarekin bat, aurrekontuari buruzko Alkatezaren memoria erantsi da:

Otsailaren 9ko Arabako lurralde Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko 3/2004 Foru Arauak 6. artikuluan ezartzen du beharrezkoa dela aurrekontu-proiektuaren gainerako dokumentazioarekin batera aurrekontu orokorraren azalpen-txosten bat aurkeztea, bertan aurrekontu-exekuziorako udal-arauan sartutako neurriak eta aurreko aurrekontuarekiko aldaketak eta berrikuntzak adierazi beharko dira.

Horrez gain, 3/2004 Foru Arauak bere 14. ataleko 1. zatian adierazten du aurrekontua eremu bakoitzeko buruak osatu beharko duela eta horrek datorren ekitaldiko aurrekontuak osatzeko beharrezkoak diren lerro ekonomikoak ezarri ahal izango dituela.

Udal honen kasuan, aurrekontu bakarra erakundearena berarena da, ez dagoelako Udalaren mendeko organismo autonomorik, enpresa-entitate publikorik edo udalaren sozietate publikorik. 2020ko aurrekontua aurreko urteko aurrekontu-exekuzioari erantzuteko osatu da.

Aurrekontu-proiektuak ematen duen itxura da egungo beharrei erantzuteko nahia eta enplegua sustatzeko konpromisoa gauzatzea, baita zerbitzu publikoak mantentzea ere, udalerrian baliabideak eta dimentsioa aintzat hartuta.

Prestakuntza eta enplegua sustatzeko neurriak

Alkate honen eta bere taldearen lehentasuna langabeziaren aurka borrokatzea da. Eta lehentasuna udalerrian erregistratutako langabezia tasak markatzen du, gutxi gorabehera % 17.

Horretarako, iaz geroztik Arabako Errioxako lantalde zehatz bat aktibatu da eta bertan parte hartzen dute udal honek, Arabako Errioxako Kuadrillak, Lanbideak eta Foru Aldundiak.

Ulertzen dugu prestakuntza enplegua lortzeko tresnarik eraginkorrena dela. Enplegurako prestakuntza Oyón-Oionen kokatutako enpresen behar zehaztetara bideratu behar da. Horrela,

enplegua sor dezaketen enpresekin harremana mantendu dezakegu, haien beharrak eta eskaerak entzun, eta, guztion artean, norabide berdinean lan egin.

Horregatik, Fondo Formación Euskadi SLLri baimenduko zaio eraikin urdineko solairuak erabiltzea lanbide-heziketako zentro okupazionalera bideratzeko (beheko solairua erabilera partekatuarekin eta erdisotoko solairua erabilera eskusiboarekin), Lanbidek profesionaltasun-eta homologatze-zurtagiriak emateko.

Aurrekontuak ez ditu prestakuntza eta enplegua sustatzeko aurrekontu partida zehatzak jasotzen; izan ere, orain arte ezin izan du beste administrazio batzuekin gai honi buruzko aurrekontu-konpromiso sendorik hartu (enpresa-garapenerako agentziak, EJ, AFA...).

Gobernu-talde honek Oyón-Oion sartu du “Enplegu Berdea Euskadin” proiektuan, lurralde bakoitzeko langabezia tasa altuena duten udalerriei zuzendutakoan. Ekonomia berdearen sektoreko puntako enpresen adibideak bilatzean datza; enpresa horiek udalerriri horietan errepika litezke eta horrela lan aukerak sortzen lagunduko dute, batez ere lan-merkatuan sartzeko zailtasun handiagoak dituzten pertsonen artean. Ideia berritzaileen nazioarteko bilaketak egin ondoren, urtarrilaren 31n sei proiektu aurkeztu ziren Bilbon, baliotsuak eta euskal errealitatera egokitzeko modukoak.

Aukeratutako sei proiektuak: Kataluniako bi, Social Forest eta Burricleta; Italiako bat, Progetto Quid; Estatu Batuetako bi, Coalfield Development eta The Plant; eta Indiako bat, Bio-Lution. Enpresa horietako ordezkariak beren ekimenak aurkeztu zituzten eta ondoren tokiko eragileekin bilerak egin zituzten. Topaketaren helburua, hain zuzen ere, sei proiektu horiek EAEn langabeziak gehien kaltetutako udalerrietan egokitzeko eta gauzatzeko aukera aztertzea da.

Lanaren Nazioarteko Erakundeak honako hau esan zuen “Gizarte- eta enplegu-ikuspegiak munduan, 2018: ingurumenaren jasangarritasuna enpleguarekin” txostenean: ekonomia berdeago baterako trantsizioak aukera emango du, hamarkada honetan, munduan 24 milioi enplegu berri sortzeko, baldin eta politika egokiak sustatu eta abian jartzen badira.

Euskadin proiektu horien kopia abian jarri ahal izateko, Lanbidek hiru lan-ildo hartu ditu aintzat Oyón-Oion, Sestao eta Urretxuko langabeekin:

- Balizko enplegatzaileen premietara egokitutako prestakuntza-ibilbideak sortzea, eskari berri horri erantzun ahal izateko.
- Enplegua eskatzen duten pertsonen ekintzazailtza- eta autoenplegu-gaitasuna hobetzeko modua bilatzea eta gidatzea.
- Langabeei laguntzeko dinamika pertsonalizatuari eustea, Lanbidek bere sare osoan gauzatzen baitu.

Nolanahi ere, aurreko urtean, adierazitako enplegu planak jarri ziren abian; horietarako 222.645,54 euro bideratu dira eta gutxienez 19 pertsona lan-merkatuan sartzea eta lanaldi erdiko kontratu bat lortzea eragin du.

Eskualdeko Enplegu Plana (4 + 1/2)

- 4 langile 6 hilabetez lanaldi osoan eta 1 lanaldi erdian
- Baldintzak: gutxienez bi emakume, DSBE
- Dirulaguntza: 44.456,98 euro
- Gastua: 44.456,98 euro

Tokiko Enplegu Plana (4)

- 4 peoi 6 hilabetez
- Dirulaguntza: 38.032,57 euro
- Gastua: 39.517,32 euro

Gazteentzako Enplegu Plana (2)

- 2 peoi 8 hilabetez
- Dirulaguntza: 26.555,98 euro
- Gastua: 39.383,97 euro

Ingurumeneko Enplegu Plana (7) AFA

- 7 peoi 6 hilabetez
- Dirulaguntza: 84.098,81 euro
- Gastua: 79.528,61 euro

Enplegu Plana: eremu behartsuak (2)

- 2 peoi 6 hilabetez
- Dirulaguntza: 19.758,66 euro
- Gastua: 19.758,66 euro

Arabako Errioxako Enplegurako Orientazio Zentroa

Guk Arabako Errioxako Enplegu Zentroarekiko dugun konpromisoari eutsi nahi diogu, beti ere Kuadrillarekin lankidetzaren instituzionala eta beste administrazio batzuen laguntza badugu. Udalaren eta Arabako Errioxako Kuadrillaren arteko lankidetzaren ekimenaren emaitza 2015ean abian jarri zen eta udaletxe zaharreko bulegoetan dago.

Enplegurako orientazio zentroa administrazio honek lan bila dabilzanen eta erabiltzaileen eskura jarri duen espazio fisiko egonkorra da, autokontsultarako tresnekin lan bilaketa aktiboan egiteko eta laguntzarekin lan-munduan txertatzeko eta hori errazten duten tresnen kudeaketan laguntzeko. Udalak eraikinaren mantentze-kostuak bere gain hartzeko konpromisoa hartzen du. 920.211017 aurrekontu-partida.

Hezkuntzari buruzko lan-mahaiaren proposamenak

Ramiro de Maeztu ikastetxe publikoak gure baldintzarik gabeko laguntza du eta ikastetxe publikoaren errebindikazioan eta defentsan parte hartzen dugu Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren aurrean eta dagokionaren aurrean. Hezkuntza komunitateak azaldutako atsekabeak eta nahigabeak kezkatzen gaitu.

Arabako Errioxako Kuadrillari eskatu diogu erakundearen arteko mahai bat osatzeko hezkuntza eremuan eskualde mailan, ikasleak eskualdeko zentroetara aldatzen dituzten udalerriei ahotsa emateko.

Halaber, lan-mahaia martxan jarri dugu udalerrian. Mahaia bi ikastetxeetako zuzendaritzek osatzen dute, baita bi IGEen presidentetzak eta udaletxeko hezkuntza zinegotziak. Mahaitik ateratzen diren proposamenak alkatetzaren onartuko ditu eta horretarako 1.000 euroko partida (326.226.000) eman da proposatzen diren jarduerak finantzatzeko.

Eskola Publikoa mantentzea lehen eta bigarren hezkuntzan (1. zikloa)

Estatuko eta Euskal Autonomia Erkidegoko legeriaren arabera, ikastetxe publikoen kontserbazioa, mantentzea eta zaintza udalaren ardura da.

Udal-aurrekontuak 184.710 euro bideratzen ditu Eskola Publikoaren ohiko mantentze- eta funtzionamendu-gastuetara (173.711 euro bideratu dira 2019ko aurrekontuan). Honela banatzen da dirua:

- Atezaina (Gizarte Segurantza eta ordainsariak): 36.818 euro.
- Mantentze-gastuak (garbiketa-gastuak barne, INDESA 2010 SL enpresarekin hitzartutakoaren arabera): 109.500 euro.
- Ura, gas naturala, elektrizitatea eta erregaia: 38.400 euro.
- Konponketa plana - Udalaguntza 2019 Programa (teilatua konpontzeko lanak eta ikasgelako pintura zentroko zuzendaritzaren proposamenez): 235.675 euro. Gogoratu behar da 2018an 165.402,15 euro baino gehiago bideratu zirela.

Udalak Eusko Jaurlaritzatik, Hezkuntzatik, 36.014 euro jasotzen ditu DBHko gelak mantentzeko eta seme-alabak Oyón-Oiongo ikastetxe publikoan matrikulatuta dituzten eta mantentze-lanetan parte hartzerako behartuta dauden beste udalerriri batzuetako gurasoen aurreikusitako ekarpena 6.000 eurokoa da.

Konponketa planerako, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Saileko Udalaguntza programari dirulaguntza eskatu zaio. Gaur egun oraindik ebazpenaren zain gaude.

Nemo Haur Eskolaren mantentze-lanak

Aurrekontu honek 35.000 euro baino gehiago bideratzen ditu Nemo Haur Eskola mantentzeko (erregaia, elektrizitatea eta mantentze lanak batez ere; 323 programako partidak). Ikasturte honetarako Oyón-Oionen 2 haur baino ez daude erroldatuta. Haurreskolak Partzuergoari udal-erabileretarako ikasgela erabiltzeko espazioak aldatzeko eskatu zaio; 2018an egindako eskaera ebatzi gabe dago.

San Bizente ikastolarekin hitzarmena

Oyón-Oiongo Udalak 2019ko maiatzaren 21eko bilkuran, 2000ko martxoaren 31ko akordioa elkar adostuta ebatzea adostu zuen, urte anitzeko zuzeneko dirulaguntza izendunaren arauzko hitzarmen berria izenpetzea urtean finantzatzen ez diren hezkuntza kontzertuaren moduluen mantentze-gastuak finantzatzeko. Hitzarmen honen aldi baterako eraginkortasuna 2019ko urriaren 1etik 2023ko urriaren 1era bitartekoa da.

Bitartean Jolasean elkartearekin hitzarmena musika eskola baterako

Aurrekontuak 5.000 euroko zenbatekoa esleitzen dio 334 481003 partidari. Dirulaguntza izendun zuzen bat da eta zuzenean bideratuta dago Oyón-Oionen musika eskola bat sortu eta bultzatzera. Hori guztia Bitartean Jolasean Elkartearekin (EEBJ) sinatutako hitzarmen baten bidez araututa dago. Udalak, gainera, elkarteari udaletxe zaharreko lehen solairua musika eskolako jarduera garatzeko erabiltzeko aukera ematen dio eta transferitutako ondasunen ur kontsumoaren, elektrizitatearen eta mantentze-lanen kostuak bere gain hartzen ditu. EEBJk bere gain hartuko du garbiketa arruntaren kostua. Musika eskolak ez du bere gain hartzen mantentze-gastuak ordaintzeko betebeharririk, adierazitakoak izan ezik.

Gizarte esku-hartzeko programak eta planak

Hainbat gizarte esku-hartze plan eta programa honako aplikazio zehatzetan banatzen dira:

- Berdintasun plana 8.000 eurokoa da.
- Genero indarkeriaren aurkako programa 2.600 eurokoa da (Estatuko laguntzak 1.300 euro baino gutxiago dira eta Udalak kopuru bera emango du)
- ISEJAO kaleko heziketa-programa (Oiongo gazte eta nerabeekin esku-hartze sozioedukatihoa) 19.720 eurokoa da.
- Kulturarteko bizikidetza plana 11.120 eurokoa da.

Euskararekiko konpromisoa

Aurrekontuak euskararekiko konpromisoa islatzen duten hainbat partida bideratu ditu:

- 335 226015 "Euskara sustatzeko beka" partida 5.000 eurokoa da, eta lehiaketa gabeko laguntza programa batek hornitzen du. Laguntza horiek euskaraz lan egiteko adinean dauden pertsonen euskararen azterketa finantzatzeko erabiltzen dira, beren familia-unitateak diru-sarrera urria izateagatik eta haientzat euskara ikastea zaila izan daitekeelako.
- 335 227071 "Sustapena, euskarazko itzulpena" partidak 6.000 eurokoa da, eta Udalean eginiko testuak euskaratzeko zein osoko bilkuretako aktak, bandoak, iragarkiak eta udaleko webgunean txertatzeko bestelako edukiak itzultzeko kontratua eskaintzen du.

Ureztatzeko uren hornidura zerbitzua

Udal honek ureztatzeko ur-zerbitzua eskaintzen die lorategia duten zenbait etxejabeek.

Ez da derrigorrez eskaini beharreko ur-zerbitzua, ez baita edateko ura ematekoa. Beste hitz batzuekin, ez du Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25. artikuluan zerrendatutako berezko eskumena osatzen; aitzitik, ez litzateke berezko eskumena izango, baina, berezko eskumenzat joko balitz, 7/1985 Legearen 7.4 artikuluan ezarritako baldintzak bete beharko lirakeke. Erabiltzaile gehiagori eskaini ezin zaien zerbitzua da

eta bildutakoa gainditzen du guztiz. Udal honek ezin du inbertsio hori aurreikusi hirurogei erabiltzaile ingururi soilik eskaintzen zaien zerbitzu batean eta udalak zerbitzu hori ematera derrigortuta ez badaude.

Administrazio honek 2018ko apirilean erabaki zuen berdegune pribatuak ureztatzeko ur-zerbitzua honako baldintza hauetara murriztea: asteleheneko 20:00etatik astearteko 08:00etara eta osteguneko 20:00etatik ostiraleko 08:00etara. Zerbitzua Udala bere berdeguneak ureztatzen hasi zen egunetik eman zen. Zerbitzua 2019ko urriaren 31ra arte eman zen.

Landa-bideak mantentzea

Kontzeptu honetara bideratuko den aurreikusitako zenbateko osoa honako hau da:

G: 454.210.001; zenbatekoa 50.000 euro.

Finantzaketa: baliabide orokorrak. (Landako OHZn aurreikusitakoaren antzekoa da) 11202; zenbatekoa 50.723 euro.

Talde honek landa-bideen mantentze-lanetarako landako OHZ biltzeko aurrekontuaren antzeko zenbatekoa esleitzeko konpromisoa hartzen du.

Ez dago lan horiek finantzatzeko AFaren edo EJren laguntzak jasotzeko aurreikuspenik.

Era berean, 454.210.001 errepideak garbitzeko partida zehatz bat zehaztu da 16.000,00 euroko hornidurarekin.

Dirulaguntzak

Epigrafe honi dagokionez, 2019ko ekainaren 10eko BOTHAn (67. zk.; 01671 iragarkia) osorik onartutako eta argitaratutako 2019-2021 aldirako dirulaguntzen plan estrategikoari atxiki zaio, bai eta transferentzien eta dirulaguntzen eranskinari, arruntak zein kapitalezkoa, ere.

Inbertsio plana

Atal honek eranskin propioa du aurrekontuan eta bertara bidaliko ditugu interesdunak.

2019ko inbertsioak

2019 ekitaldiko inbertsioak gauzatzea alkatetzatik kanpoko hainbat zailtasunek eragotzi dute; hauek dira arrazoiak:

El Poyal - Santa Lucía kalea berrurbanizatzeko obrak eten egin dira eta etearen arrazoiak OI19250IU-AYTO obra-zuzendaritzaren txostenean jaso egin dira: segurtasun arrazoiengatik eta Litografia Alavesa SL enpresak bere jarduera garatzen jarraitzeko eragozpenik ez izateko, erreferentzia-obra handitzeko obrak amaitzen direnean hasi beharko litzateke. Proposatu da 2020ko martxoaren 1ean kentzea etete hori.

World Comexternexport SL enpresak administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu zuen Pozo Fonso kaleko ekialdeko sekzioaren urbanizazio-proiektua behin betiko onartzearen aurka, eta urbanizazio-lanak eteteko eskatu zuen. Orain erabaki judizialaren zain gaude.

Aurreikuspenen arabera, Sindikatuen Etxearen erabilera berrietarako inbertsioa hitzarmen batean edo gehiagotan artikulatuko litzateke inplikaturako erakundeekin, Osakidetzarekin, Lanbiderekin. Elkarrizketak sustatu egin dira, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuetan aurrekontu partida dago eta aurrekontua aurkeztearen zain gaude.

Espero dugu aurreko ekitaldiko egoera latza datorren urtean konpontzea eta eraikina berrerabili ahal izatea.

Inbertsio horiek aurten egin nahi dira, eta, horrek, behin 2020. urteko aurrekontua onartu ondoren, inbertsio kreditu horiek sartzera bultzatzen gaitu, 3/2004 Faren 32. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Gastuen egoera kapitulu mailaren arabera integratzen da, honako xehetasun honen arabera:

Gastuen egoera

I. Langileen gastuak	645.860,00
II. Ondasun/zerbitzu arrunten erosketak	1.673.333,00
III. Finantza-gastuak	4.000,00
IV. Transferentzia arruntak	238.400,00
V. Kreditu globala	32.499,00
VI. Inbertsio errealak	713.375,00
VII. XXXXXXXX	00,00
VIII Finantza aktiboak	3.000,00
Guztira:	3.310.467,00

Giza-baliabideak - I. kapitulua, Langileen gastuak

Udalhitz betetzea

Administrazio honek Udalhitz 2008-2010 beteko du eta adi jarraitzen die EUDELen eta ordezkari gehien duten zentral sindikalen arteko negoziazioei, egungo UDALHITZ erabat berrikustea ekarriko duen arautze-hitzarmen berria lortzeko.

Ordainsarien araberako langileen gastuetarako gastu-zuzkidurak 2020rako aurreikusi dira.

I. kapituluan xedatutakoa Udalhitz 2008-2010 xedapenekin bat etorri osatu da, administrazio honetako langile publikoen baldintzetarako akordio arautzailetzat hartzen baita.

Ordainsariak 2020ko soldata igoeren EUDELen gomendioaren arabera handitu dira.

Ordainsarien kalkulua

I. kapituluaren zenbatekoa 645.860,00 eurokoa da. Antzinasunagatiko ordainsariak egokitu dira. Kapitulu honetako zehaztapenak langileen, LZren eta langile-aurrekontuen eranskinen zehazten dira.

AG/ADIN/IT/C1/16/222/2 lanpostu hutserako aurrekontu-zuzkidura bat ezarri da, bada ez bada ere administrazioko langileen beharrak aldi baterako asetzeko burtsako prozesua garatu den.

Lanpostu-zerrenda

Lanpostu-zerrendan ez dago aldaketarik 2019ko LZri dagokionez 2019ko martxoaren 13ko osoko bilkuraren adostasunez aldatutakoa. Eta, era berean, ez dago aurreikusita erretiroetarako funtzio publikoa eta lan lotura duten pertsonentzat.

Salbuespena derrigorrezko hizkuntza profilen araubide orokorra betetzetik

Plangintza-aldiaren hasieran, langile publiko guztiak 45 urtetik gorakoak ziren, salbu obra eta zerbitzuen burua eta Diruzaintzako eta Kontu Hartzailetzako administraria.

Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautzen duen 86/1997 Dekretuaren 42. artikulua dio, Euskal Funtzio Publikoko Legearen 97.3. artikulua arabera, plangintzaldi bakoitzaren hasieran 45 urte baino gehiago dituzten langileak salbuetsita egongo direla betetzen duten lanpostuak eskatzen duen hizkuntza-eskakizunen derrigorrezko erregimen orokorra betetzetik, interesduna alde aurretik ados badago.

Giza-baliabideei buruzko informazio gehiago aurki daiteke LZn eta lanpostu bakoitzaren funtzioen xehapenetan.

Alkatearen eta 3. alkateordearen lanaldi partzialeko erregimena

2019ko uztailaren 8ko saioan erabakitakoaren ondorioz ezarri zen alkatearen eta hirugarren alkateordearen gutxieneko lanaldia. Bizilagunei eta herritarrei arreta zuzena, enpresei arreta eta beste administrazioekiko harreman estua bermatzeko lanaldia da, bai Oyón-Oionen bai Gasteizen. Aurrekontuetan izan duen eragina ikus daiteke honako eskaera hauetan: 920 - 100.000 eta 920 - 160.000. Jendurrean jarri da iragarkia Udaleko iragarki taulan, Udaleko

webgunean, 2019ko uztailearen 24ko BOUTHako (85. zk.) 02369 iragarkian eta eskualdeko hedapen-egunkarian.

Zergak, tasak eta prezio publikoak eguneratzea

2020 ekitaldiko ordenantza fiskalen aldaketaren eraginez, hiri-ondasun higiezin zergaren karga-tasa aldatzea; 2020koa 0,22koa da. Aldaketa hori gertatu da Arabako Foru Aldundiak baloreen aurkezpen berri bat egin duelako. Mota berri honekin eta Foru Aldundiak emandako datuekin, hiriko OHZren hasierako aurreikuspena ezarri dugu: 579.868 euro.

Konpromiso-kredituak

Konpromiso-kredituen egoera ekitaldian zehar konprometitu daitezkeen zenbait urtetarako gastuen multzoak osatzen du, eta horren onarpenak gastu horiek formalizatzeko baimena emango du, betiere, ezarritako baldintzetan.

2020, 2021, 2022 eta 2023 urteetan 323 481001 partida 95.000 euroko zenbatekoarekin hornitzea eragin zuen konpromiso-kredituen espedientea behin betiko onartu zen eta 2019ko ekainaren 14ko BOUTHako (69. zk.) 01825 iragarkian argitaratu zen.

Ohar-orokorra

Aurreko ekitaldiko benetako gastua aintzat hartuta egindako aurrekontuak dira, eta, ahal izan dugun heinean, zerbitzu publikoak mantentzera eta langabeziaren aurkako borrokara bideratuta daude.

Aurrekontua Estatuko administrazioak eta Arabako Foru Aldundiak ezarritako jarraibideen arabera da, baita lurralde historiko osoan hobekuntzak aurreikusten dituen finantza- eta ekonomia-errealitatearen exijentzien arabera ere. Halere, zuhertasun-irizpidearen ondorioz, ezin ditugu egin diru-sarrerak baino handiagoak diren balioztapenak. Ez da maniobra egiteko tarte handirik izan prestakuntzan, eta lehenetsi beharrekoak lehenetsi ditzagun eskatu dugu.

Aurrekontu hau 2019ko ekainaren 15ean hasi zen Udaltzaren agintaldi honetan prestatutako lehenengoa da. Udalaren kudeaketaren buruzagitzan lau urte bete ondoren eta gobernu-talde honek 2016, 2017, 2018 eta 2019 ekitaldietakoak prestatzen metatutako esperientziarekin egindako dokumentua da.

Aurrekariak

1. 2020. urteko Ohiko Aurrekontu Orokorraren proiektua 2020ko otsailaren 7an bidali zitzaizen zinegotzi guztiei.
2. Zuzenketak formulatzeko epea ezarri zen 2020ko otsailaren 7ra arte.
3. Epe horretan zehar ez da zuzenketarik aurkeztu, ezta zalantza, galdera edo argitzeko eskaerarik ere.
4. 2020ko martxoaren 4ko Kontuen Batzorde Berezian ez zen zalantza, galdera edo argitzeko eskaerarik egin.
5. Aplikatzekoak dira Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko otsailaren 9ko 3/2004 Foru Arauaren 6.-12. eta 14., 15. eta 16. artikulua.
6. Halaber, aplikatzeko da 7/85 Legearen 47.1 artikulua: aurrekontuen behin-behineko onarpena gehiengo absolutua behar ez duen akordioa da.
7. Kontu Hartzailetzaren txostena jasota dago.

Hau erabaki da:

1. Hasieran onestea 2020 ekitaldiko ohiko aurrekontu orokorra.
2. Onartzea aurrekontu-exekuzioaren udal-araua.
3. Lanpostu-zerrenda onartzea.
4. Espedientea jendaurrean jartzea otsailaren 9ko Arabako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuei buruzko 3/2004 Arauan ezarritako epeetan.
5. Behin-behineko onarpen-erabaki hau behin betikoa izango da ez bada alegaziorik aurkezten. Alegaziorik badago, hilabeteko (1) epean ebatziko dira.

7. Espedientea behin betiko argitaratzea eta Arabako Foru Aldundiari horren berri ematea.

Aldeko 6 (sei) boto: Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE PSOE) eta Hilario Fernández Ruiz (PSE-EE PSOE).
Aurkako 3 (hiru) boto: José Manuel Villanueva Gutiérrez (EH Bildu Oion), Borja Duque Sáenz (EH Bildu Oion) eta Eduardo Inclán Gil (PP).

Azken puntua) Galde-eskeak.

Inclán jauna: Ur Partzuergoa likidatzeari eta merkataritza-sozietate publikoaren eraketari buruzko galdera dut.

Tarragona jauna: Ez da erabakirik hartu. Horri buruzko erabaki bat hartzeko beste bilera bat egingo dela imajinatzen dut.

Gamarra jauna: Plaza Nagusira sartzeko eskaileretan zikinkeria handia dago.

Alkate jauna: Gezurrei buruz zerbait adieraztea pentsatzen ari gara.

Villanueva jauna: Ni manifestuaren alde nago. Lasaitasuna transmititu behar dugu, urduritasun handia dago.

Ez da galdera gehiagorik egin.

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:55ean (bilkura 20:00etan hasi zen), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oyón-Oionen, 2020ko martxoaren 27an.

Udaleko idazkaria:

O.E. Alkatetza.